

GARO-TARTEAN.



(NERE BIOTZEKO ADISKIDE DOMINGO AGIRRE-KOARI)

Emen, aritz zar baten
 Itzalpe gozuan,
 Mundutik aldegin ta
 Mendiko chokuan,
 Gañean aditurik
 Choriyak kantuan;
 Piska bat arontzago
 Dagon bordachuan,
 Arzai-mutill chiki bat
 Atsegin santuan;
 Bildots eta idiyak
 Zelai ta soruan,
 ¡Au bai dala izatea
 Euskaldun moduan!

Iturriyak, arbolak,
 Zelai ta mendiyak,
 Denak dira neretzat
 Chit maitagarriyak:
 Garoa pizkortzen du
 Intz dizdizariyak;
 Bazter guziyak ditu
 Alaitzen choriyak,
 Era betik dijoan
 Erreka chikiyak,
 Geldirik daramazki
 Bere ur garbiyak.

¡Au da pake santua!
 ¡Au da gozaera!
 Emen ez det aditzen
 Ezpada euskera:

Eta begiratzean
 Baserri-aldera,
 Usai gozo bat dator
 Poza ematera.

Usai orrek izena
 Dauka birtutea:
 Anchen dago isillik,
 Ederki gordea,
 Ala nola gordetzen
 Dan umili lorea,
 Naiz egon edertasun
 Bikaiñez betea.

Euskaltasunez dago
 Au dena beterik:
 Emen ez det aditzen
 Munduko soñurik:
 Pakea, gozaera,
 Dabill nagusirik,
 Aizearen bitartez
 Bigunki esanik:
 ¡Maité! nai badezute
 Izan zorionik!

¡Maité! dio choriyak
 Arbolen gañean:
 ¡Maité! isiltasunak
 ¡Izkuntz ederrean!
 Nere biotzak, ere,
 Oyek aditzean
 ¡Maité! ¡maité! dio gaur
 Bere barrenean,
 Garo-tartean pozez
 Nabillen artean.

KARMELO ECHEGARAY-KOAK.

Zaldibian, 1891-ko Uztaillean.

